

Kolonbian bahituta. 74 egun ELNren esku



Asier Huegun
Gari Udabe

KOLONBIAN BAHITUTA

74 EGUN ELNREN ESKU



LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2012ko iraila

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Asier Huegunek
GariUdabek OBRARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.
San Isidro, 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

ISBN
978-84-15313-28-1
LEGE GORDAILUA
NA. 1.637-2012

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
Graftas Lizarra
Tafallako errepidea 1. Km.
31132 Villatuerta - Nafarroa



ONDO GOGOAN DUT ASIER BAHITU ZUTENeko GARAI HURA: Euskadi Irratiko *Faktoria* irratsaioko asteburuko saioa gidatzea egokitu zitzaidan, eta asteburu batean bai eta hurrengoan ere berdin, Donostiako gazte haren inguruan azken orduko albisteren bat jasotzeko zain egoten ginen. Egun batean aske utzi zuten arte.

Etxera iritsi eta hurrengo egunean, prentsaurrekoa eskaini zuen Asier Huegunek. Bere bahiketak sortutako zalapartaren ondoren, eta jasotako babesaren ostean, bizi izandako esperientzia komunikabide guztiekin konpartitu zuen, eta egun hartako jarduna bukatzeko, Asierrek mesede bat eskatu zigun denoi: denboraldi luze batean lasai utz genitzala bera eta familia.

Sei hilabetez errespetatu genuen nahi hura, egun batean hots egin eta irratira bizi izandakoa kontatzera etortzeko gonbita onartu zuen arte. Elkarrizketaren egunean ezagutu genuen elkar Asierrek eta biok. Eta, seguruenera, ez zitzaigun orduan biotako inori burutik pasatu ere egin aurki zenbat ordu eman behar izango genituen elkarrekin lanean.

Elkarrizketak, antenan, luze jo zuen. Izan ere, gauza asko zeuzkan Asierrek kontatzeko. Eta nik, galdera asko

egiteko, eta jakin-min gehiegi. Hala ere, irratia egiterakoan askotan gertatzen den moduan, zenbait momentu, bizipen eta xehetasunetan gehixeago sakontzeko denborarik gabe geratu ginen.

Estudiotik atera, eta pasilloan zegoen kafe makinara jo genuen, mikrofonorik gabeko solasaldi lasaian jarraitzeko. Eta han geundela esan nion Asierri zergatik ez zituen esperientzia guztiak libururen batean-edo argitaratzen. Hilabete batzuk lehenago albistegietako hainbeste minutu bete zituen benetako historia hura konpartitzea interesgarria zatekeela. Asierrek arrazoi eman zidan, baina bera ez omen zen bizi izandakoa letretara pasatzeko gai sentitzen. Hala eta guztiz ere, egitekotan, beretzat eta gertukoentzat bakarrik egin nahi zuela.

Momentu hura probestu nuen «zast» amua botatzeko: «Eta nik laguntzen badizut?». «Joder! Kazetari guztiak berdinak zarete» izan zen haren erantzuna. Minutu batzuetara, irribarre batekin, «nahi duzun arte, segi ondo» esanez elkar agurtu genuen.

Handik egun pare batera, Asierri egin nion proposamena apenas buruan nuela, erredakzioko mahaiko telefonoak jo zuen. Erantzun, eta beste aldean Asier Huegunen ahotsa entzun nuen; kafe bat hartzeko gonbita egin zidan. Onartu egin nuen, jakina.

Anoetako estadio inguruetan erretako zigarroekin eta hartutako kafeekin eman genion hasiera gaur esku artean duzun liburu honen proiektuari. Eta, egia esan, denbora pasatu da. 8 urte. Asko? Ba, egia esan, guk biok nahi baino gehiago. Baina hori dena behar izan dugu.

Hasieran, ordu asko eman genituen astero elkartzuz eta bahiketako egunetan gertatutako guztia xehetasunez grabatuz. Oiartzunen Asierrek zuen etxeko hormek hitz egingo balute, bestelako makina bat kontu ere aipatuko lituzkete. Elkarriketa ordu haiek bukatu ostean, grabagailuak gorde-

tako guztia ordenagailura transkribatzeko garaia etorri zen. Gero, material horren gainean lan egin eta Asierren historia-ri forma ematen hasia, aldaketak egitea, idatzitakoa batere ez gustatzea eta berridaztea, berriro forma ematea, zuzenketak egin eta testuari beste orraztualdi bat ematea, konfi- antzako pertsonari irakurtzeko faborea eskatzea eta haien iritzia ezinbesteko eta estimagarria jasotzea, eta horren arabera berriro idaztea. Gero editorea aurkitzea, eta haren iritzia jasotzea (aurrekoak bezain ezinbesteko eta estimagarria haur ere), eta zuzenketak eta berridazketak, zalantzak, eztabaidaren bat edo beste, orrazten segitu, azkeneko ukituak, berri- rakurri, irakurri, eta aldaketa txikiren bat egin, eta berriro irakurri... azkenean, egun hartan, «kito, honaino! Hau prest dago» esan genuen arte.

Esku artean duzun liburua, lehendabiziko bertsioetik azkenekora asko aldatu den bezala, Asier eta bion bizitzak ere bai pixka bat zortzi urte hauetan: hiru alaba badituzte Asierrek eta Estitxuk, eta nik ia hiru urte daramatzat New Yorken bizitzen.

Kolonbian bertan ere aldaketa asko izan dira urte haue- tan guztietan, eta izaten ari dira orain, baina sinetsita gaude horrek ez diola indarririk kentzen orain kontatzera goazen esperientziari. Eta, bide batez, modu xumean bada ere, hango egoera pixka bat gehiago ulertzeko gako batzuk ematen ere saiatu gara.

Izan ere, egoera pertsonal gogor bat izan zen Asier eta beste bahituei beren azaletan bizitzea tokatu zitzaiena. Eta momentu haietan pasatu zuena, bizi izan zuena, sentitu, pentsatu edo negar malkotan bota, ahalik eta garbien helarazi nahi dizuegu liburu honen bidez.

Ea lortu dugun...

GARI UDABE PAGOLA

I

Ni, Asier

ONDO GOGOAN DUT NIRE BIZITZAKO GARAI HURA . 2000. urteaz geroztik, Oiartzunen bizi nintzen. Hala ere, izatez, jaiotzez eta, zalantzarik gabe, bihotzez, donostiarra naiz. Gauzak garbi eta zehatzago esate aldera, Alde Zaharrekoa (ez baita gauza bera Donostiako auzo batean edo bestean jaiotakoa izatea). Ez dauzkat alferrik hango kaleetan barrena bizi izandako hainbeste historia eta belaun urratu!

Umetan, gurasoek Bretxako merkatuan urteetan izan duten harategi postura joatea gustatzen zitzaigun lau anai-arreboi, eta han saltsan ibiltzea. Badakizue, handien gauzak egiten! Lau senidetatik hirugarrena naiz ni.

Koxkortu ahala, merkatuko saltzailearen lana zein astuna den jabetzen joaten da norbera, eta denok, ofi zio gisara, beste bide batzuk hartu ditugu.

Oreretako enpresa batean lan egiten dut duela urte askotatik, garabiekin. Gustuko jarduna dudan arren, betidanik izan dut argi lana bizitzeko egin behar dela eta ez lanerako bizi. Horregatik, akaso, berebiziko garrantzia izan du niretzat aisialdiak: futbol 7an aritu izan naiz denbora luzez, eta, bereziki, musika maite dut.

Familia abertzale batean jaio eta hezia naiz Ezein alderditan militante gisa jardun ez badut ere, ezkerreko politiken defendatzailea izan naiz beti, eta gizarte politikekin berebiziko ardura sentitu izan dut.

21 urterekin egin nuen etxetik kanporako lehen bidaia urrunera, Kubara. Fidel Castro bizirik zegoen bitartean herrialde hura ezagutzeagatik joan nintzen, hilabetez. Gainontzean, Erroma, Herbehereak eta Maroko dira orain kontatzera noan esperientziaren aurretik ezagutu nituen herrialdeak.

Garai hartan banuen arantza bat barruan sartuta. Beste lagun eta ezagun askok bezala, ez nuen nik Erasmusen edo lanaren aitzakian atzerrian denboraldi bat pasatzeko aukerarik izan. Hori egitea, agian, ez da beharrezkoa eta nahitaezkoa guztiontzat, baina ez dizuet ukatuko antzeko esperientzi bat bizitzeko gogoia sentitzen nuela.

Horregatik, arantza hori ateratzeko garaia zela erabaki nuen. Hura zen momentua. Aspertu samar nengoen beti gauza bera egiteaz, eta aldaketa bat behar nuen. Iñigo lagunari proposatu nion elkarrekin Hego Ameriketara joateko ideia, eta baiezkoa jaso nuen. Ederki! Banuen laguna. Gainontzeko guztia geratzen zen.

Lanean baimena eskatu eta ez zidaten eragozpenik jarri. Familiar nola hartuko zuten neukan zalantza, baina erabat animatu ninduten. Gurasoek ez zuten halakorik egiteko aukerarik izan, eta halako zerbait seme-alabentzat nahi izatea normala da. Izugarri ongi hartu zuten ideia. Egia osoa esan dezadan; beti dago «zertara zoaz haraino?» galdetzen dizun izebaren bat. Baina hori familia guztietako kontua dela uste dut.

Aitortuko dut, nire bidaidea ez bezala, inprobisazioari tartea egitearen zalea naizela ni. Horrela bidaiatzea gustatzen zait. Eta kasu honetan ere, Iñigo lagunaren urduritasunen kaltez, denbora justua eskaini genion prestakuntzari.

Euskaldunon legean, maite ditugun familiarteko eta lagunak mahaiaren bueltan behar bezala agurtu ostean, 2003. urteko apirilaren 17an abiatu nuen, orduan imajinatu ere egiten ez nuen nire urtebeteko abentura.

Ekuador, Peru, Txile, Bolivia eta Argentina ezagutzea zen hasierako helburua. Baina gauzak ez zitzaizkigun espero bezala atera: Ekuadorren geundela, nire bidelagunak, belau-neko oinaze baten ondorioz, etxeratu egin behar izan zuen aste gutxitara.

II

Bahiketa

ASKO PENTSATU OSTEAN, bidaiarekin aurrera jarraitzea erabaki nuen, eta Kolonbian zegoen Estitxu laguna ikusteko aitzakiarekin, hara abiatu nintzen. Laguntasuna baino gehiago geneukan Estitxuk eta biok. Oso berezia zen niretzat. Garai hartan, bera Kolonbian denboraldi bat pasatzen ari zen eta aldaketa hura aukera ezin hobea iruditu zitzaidan berari bisita egitera joateko. Egun ederrak izan ziren.

Bogota, Medellin eta Cartagena ezagututa, Santa Martara abiatzeko gomendioa egin zidaten, eta han Ciudad Perdida trekkinga egitea. Horregatik hartu nuen sei eguneko mendi-bidaia beste zenbait turistarekin batera.

Edwin gidariak hiru egunetan Ciudad Perdidaraino eramantzen gintuen. Hura zenbait orduz ikusi, atsedean hartu eta beste bi egunez berriro Santa Martaraino jaitsiko gintuen. Hori zen asmoa.

Indigenenak izateko itxura zuten baina turistentzat prestatuta zeuden egurrezko zenbait txabolatan atsedean hartzen ari ginen denak.

Irailak 12. 1. eguna.

Lo geunden. Goizeko 04:30ak inguru izango ziren. Bat-batean zalaparta handia entzun nuen kanpoaldean eta esnatu egin nintzen. Zer zen iskanbila hura? Beldurtu egin nintzen. Militarrez jantzitako bost pertsona txabolara sartu ziren builaka:

—*Somos la AVC¹. Venga, que hay una balacera abajo y hay que salir de aquí.*

Ez nuen ezer ulertzen: armekin bat-batean txabolara sartu ziren militarren buila haiek, azkar mugitzeko keinuak, bat-bateko esnaera hura... Nahasmendua baino handiagoa zen une hartan sentitzen hasi nintzen beldurra. Bihotza bera ere abiada bizian antzematen nuen. Ez nuen ezer esan. Motxila ahal nuen bezain azkar egin nuen. Gizon armatuak besterik ez nituen ikusten alde batera eta bestera mugituz, serio eta presaka. Zelai batean elkartu gintuzten bertan geunden bi taldeak.

Biribilean jarri ginen denak. Erdian, ilargi betearen argipean, buruzagi lanak egiten zituen aurpegi itsusi bat, itxura hori hartu nion behintzat. Militarren erara txapela okerka jantzita zeukan. Gerora jakin nuen Giovanni izena zuela.

Niri begiratu eta oihuka hasi zen:

—*El de las argollas, allí.*

Belarritakoak, beste behin ere, eta munduko mutur hartan, zeinu bereizgarri bihurtu ziren.

Beldurrak keinu bereziren bat badu, han geundenon aurpegietan ikusten nuen hark izan behar zuen. Inork ez zuen ezer esaten. Txintik ere ez. Militarrez jantzitako pertsona haiek oihukatzen zutena arreta handiz entzun besterik ez genuen egiten.

1. Autodefensas Unidas de Colombia. Aurretik existitzen ziren talde paramilitarrak batzeko asmoz 1997. urtean sortutako eskuin muturreko talde paramilitarra.

Nik Edwin gidari begiratzten nion. Hark lasai egoteko keinua egiten zidan. Ez zela ezer gertatuko esaten zidan. Han zer pasatzen ari zen ez nekien, baina egia esan behar badut, momentu haietan ez zitzaidan burutik pasatu ere egin hura bahiketa bat izan zitekeenik.

Gurekin egin zuten bezala, beste batzuk ere bi taldetan banatu zituzten. Batzuk alde batera eta besteak bestera bidali zituzten. Nire taldean, lau israeldar, bi ingeles eta alemaniar bat geunden.

Emakume bakarra Reini izeneko alemaniar ilehoria zen. Oso altua. 1,85 inguru neurtzen zuen eta eskalatzaila zen aldetik asko landutako gorputza zuen. Gore-texa eta mendiko motxila zeramatzan, baina zapatila arruntak.

Mark-ek, ingelesetako batek, ile motza artilezko txapela batekin estaltzen zuen. Ni baino zertxobait txikiagoa zen, 1,75 inguru neurtzen zuen. Motxila txiki bat zeraman bizkarean. Galtza berdeak eta zapatila arrunt batzuk oinetan.

Mathew Scott izeneko gaztea zen bigarren ingelesa. Hura ere sasoiko zegoela iruditu zitzaidan, eta mendirako arropa egokia zeraman.

Beny eta Orpaz, berriz, israeldarrak ziren. Lehendabizikoa txikia eta beltzarana zen. Orpaz, berriz, altuagoa zen, eta ile oso beltza zuen. Mendirako oso egokia zen materiala zeramatzen soinean: euritik babesteko plastiko bereziak, esate baterako. Arkakusoak ziruditen hura jantzita. Taldeko gizenena ere halatsu zihoan. Ilea motza zeraman Erez izeneko gizon betaurrekodun hark.

Laugarren israeldarra Ido zen: 1,70eko garaiera, ile kizkurra eta ume aurpegia zuen. Hura ere ez zihoan mendirako materialik egokienarekin. Banba tankerako oinetakoak zeramatzan.

Bi taldeak osatutzat jo zituztenean, ilaran elkarren segidan jarri, eta oihanean maldan gora oinez abiatu ginen. Ez genekien nora.

Isiltasuna zen nagusi. Eta ilargiak betea jarraitzen zuen. Hankak non jarri ikusteko argi bakarra hura genuela kon-turatu nintzen. Gu erdian eta aldamenetara soldadu haiek zetozen armak eskuetan hartuta.

—*¡Vamos, vamos! ¡Pilas, pilas!* —oihukatzen zuten, zakar, ilarako jendearen pausoa azkartu nahi zutenean. Ez zuten besterik esaten. Baina oihu haiek oso ozen esaten zituzten. Serio zetozen denak, handik lehenbailehen alde egin nahiko balute bezala!

Oso azkar ari zen guztia gertatzen eta zer pasatzen ari zen ulertzeko eta pentsatzeko denborarik ere ez nuen izan. Horregatik, akaso, gerora ere, memorian atzera egin eta une haiek ikusteko ahalegina egiterakoan, kostatu egiten zait lehendabiziko minutu haietan gertatutakoa garbi gogoratzea. Baina beldur sentimendua eta zenbaitetan barruan sumatzen nuen hotzikara oraindik ere oso presente ditut.

Goizeko bostak aldera atera ginen mendian gora pre-saka, korrika. Militarrez jantzitako haiek armak eskuetan zituzten eta agindutako guztia betetzen genuen. Ausartenek, edo lotsagabeenek, noizean behin, hitz egiten zuten:

—Nor zarete?

Galdera horrek, ordea, erantzunik ez zuen jasotzen. Askoz jota:

—Ez galderarik egin. Aurrera joateko esan dizut —eta bultzada zakar batekin isilarazten gintuzten.

Ibili eta ibili... Hori zen gure zeregin bakarra. Ibili eta ibili. Eta gehiago ibili. Haitz artean abiatu ginen hasieran. Landare asko zegoen, zuhaitz asko. Alde batera begiratu edo bestera berdin zen: oihan itxia, sastraka eta zuhaitzez betea, berdea. Eta erdian, gora egiten zuen bidea dei geniezaiokeen garbigune estu bat. Ilargiak eguzkiari lekua egin zion. Haren beroa antzeman genuen lehendabizi. Baina zenbat eta gorago igo, orduan eta laino eta euri gehiago.

Egoera hartan oinez ibiltzeko aproposenak ez ziren zapatilak neramatzan. Baina tira, haiekin aurrera egin beste erremediorik ez nuen. Euritik babesteko, zabor poltsa beltz batzuk eman zizkiguten.

Ordu asko generamatzan ibilian. Atsedenaldi gutxietako batean, Papa Noel markako galletak jan genituen indarrak berritzeko.

Geldiunerik ez zen han. Ibili, ibili eta ibili... gora, gora eta gora... aurrera, aurrera eta aurrera egitea zen helburu bakarra. Banakako ilaran, nor ziren ideiarik ere ez geneukan militarrez jantzitako 15 pertsona armaturekin egiten ari ginen bide hura guztia. Noizean behin oihu egiten ziguten, eta norbait geratuta ikusiz gero, bultzada baten bidez mugiarazten zuten. Egoera hartan bakarrik aurkitu izan banintz, momentu batzuetan sentitzen ari nintzen ikara askoz ere handiagoa zatekeen. Baina orduan konturatzen hasi nintzen zenbait momentutan ezezagunengan babesa aurkitu daitekeela. Zure egoera berean beste zenbait pertsona ikusteak, neurri txiki batean, lasaitu egiten zaitu. Krudela, berekoia dirudi horrela esateak, baina hura bakardadean bizitzea okerragoa izango zen.

Aurretik, Reini alemaniarra, Mark eta Mathew ingelesak eta neroni gindoazen. Israeldarretako bat, Erez, gizentxo zegoenez eta nekezagoa egiten zitzaionez bidea egitea, atzerago zetorren beste hiru israeldarrekin batera.

Behin baino gehiagotan gogoratu nintzen beste taldean zihoazen bi australiarrekin. Oso gizenak zeuden, eta ez nuen inolako zalantzarik: erritmo hura jasangaitza egingo zitzaien.

Halako batean, bidera behe-lainoa sartzen hasi zen momentuan, Mathew Scott ingelesa maldan behera hasi zen lasterka. Militarrez jantzitako haiek ustekabeen harrapatu zituen eta neroni ere bai. Behe-lainoa zuen babes bakarra maldan behera zihoan iheslariak.

Alferrik izan ziren bidetik egin zizkioten oihuak. Aurrera egin zuen berak. Hala imajinatu nuen, izan ere, behe-lainoak itsutasuna ere berea duenez, ez nuen ezer ikusten.

Militarrez jantzitako haiek, lehenaz gain, are urduriago jarri ziren. Elkarri begiratzen zioten gertatu zenaren argibide bila ariko balira bezala.

Haserre tonuko oihu baten bidez aurrera jarraitzeko agindua eman ziguten gainontzekoei. Eta haserrea garbi entzun eta antzemateaz gain, bakar batzuen aurpegietan ikusi ere egin nuen! Ez zitzaidan batere gustatu. Puf! Ezinegona sortu zitzaidan hura entzun eta ikustean. Zenbait momentutan gurekin erabiltzen ari ziren zakarkeria areagotu egingo zen beldur nintzen. Bidean jarraitu genuen: gora, ibilian, aurrera...

Elkarren artean hitz egiteko aukera gutxi izan genuen. Justu nongotarrak ginen esatekoa. Eta buruan galdera asko:

«Baina nor dira? Nora goaz? Zertara? Zer gertatzen ari zaigu?». Oinez aurrera gindoazela gero eta pisu handiagoo hartzen zuten galderek, baina egin beharreko ahalegin fisiko handiegia zen haiei erantzunak aurkitzen hasteko.

Gero eta euri gehiago egiten zuen. Zaparrada handiak bota zituen egunaren bukaeran. Eta eurite gogorak has-tearekin batera, egun argia bukatu zen. 15 orduren ondoren txabola batera iritsi ginen: lau ohol, lastozko teilatua eta, lurraren hotzetik babesteko, lastozko manta handi bat zituen txabola hark.

Bakoitzaren erritmoa desberdina zenez, pixkanaka iritsi ginen: orain bat, geroxeago bestea. Suaren inguruan jarri ginen denak. Eta orduan eman ziguten lehendabiziko otordu beroa: arroz esnearen antzeko zerbait.

Nekatuta geunden. Leher eginda. Hotzez eta bustita. Ez dakit seguru, nekeak areagotu edo apaldu egiten dituen kezka, beldurra, ikara eta gisako sentimenduak. Ez naiz

gauza niregan izan zuen eragina argitzeko. Momentu hartan, ezkutatu, tapatu egin zuela esan dezaket.

«Non gaude? Nora goaz? Zer ari zaigu gertatzen? Esan diguten bezala paramilitarrak ote dira? Eta hala ez bada, nor dira?». Galderek bueltaka jarraitzen zuten nire barruan. Momentu hartan erantzunik ez zuten galderak ziren.

Zazpi pertsona ginen han gure borondatearen kontra geundenak: zazpi pertsona ezezagun, desberdin; hizkuntza desberdinak hitz egiten genituen sei gizon eta emakume bat. Hain ginen desberdinak, baina aldi berean hain berdinak: denok sentitzen genituen nekea, hotza, kezka.

Gu zazpiok, beste egoeraren batean, beste lekuren batean, seguruenera egingo ez genukeen zerbait egin genuen egun hartan: lastozko ohean elkarren kontra jarri ginen pega-pega eginda eta elkarri beroa emanez lokartzen saiatu ginen.

Une haietan, isiltasun hartan, elkarren segidan etzanda geundela, burutazio nagusi bat nuen:

«Zer ari zait gertatzen eta zergatik niri?».

Egun batzuk lehenago, Edwin gidariak esandakoa ere gogoratu nuen: inguru hartan arriskurik ba ote zen galdetuta, ezetz erantzun zidan: *vacuna* deitzen diotena ordaintzen zutela eta lasai egoteko. Talde armatuek, familiak eta negozioak babestearen truke, zibilei kobratzen dieten zerga da *vacuna* deiturikoa.

Irailak 13. 2. eguna.

—*¡Pilas, pilas! ¡Empaquen que nos vamos!* —oihukatuz esnatu gintuzten goizeko 05:30 aldera. Mugiarazteko ostikada txiki-
ren bat jaso zuenik ere izan zen. Urduri jarraitzen zuten soldadu haiek. Horretan ez neukan zalantzarik.

Eta halaxe egin genuen. Geneuzkan traste gutxiak jaso, eta konturatzera oinez gindoazen.

Aurreko eguneko egoera eta bide antzekoetan abiatu ginen. Mendi tontorretarantz gindoazen. Orduan konturatu nintzen zein paisaia ederrak ziren begi bistan nituenak: haitzez osatutako gailur batetik barrena oinez joan ginen. Alde batera harria besterik ez geneukan, eta bestera, berriz, amildegia handi bat. Oihan oso itxi bat ikus nezakeen maldan beheara. Eta ez hain urrutian laku txiki bat. Hainbeste alditan zanpatu nituen Pirinioetako gailurrak etorri zitzaizkidan gogora.

«Zoragarria», pentsatu nuen paisaiaren edertasun hura begi bistan neukala. Baina errealitateak, zaplastako baten bidez, benetako egoerara ekarri ninduen. Eta egia, zoragarri-tik ez zuten askorik ordu haiek.

Bidea bi taldetan egiten jarraitu genuen: Reini, Mark eta ni, 3 europarrak aurretik, eta Beny, Orpaz, Erez eta Ido, 4 israeldarrak atzetik.

Halako batean, laku baten inguruan zegoen txabola batera iritsi ginen: kanaberaz eutsitako lastozko sabaia zuen eta forma biribila. Ez geunden bakarrik: jende gehiago zegoen. Paramilitar gehiago, itxuraz. Atsedean hartzen geratu ginen han. Txabolaren barrua hutsik zegoenez, norberak bere lekua hartu genuen. Etzanda jarrita, sabaiko lastoa eta handik soldaduren batek zintzilik jarritako armaren bat edo beste ikus nitzakeen.

Egia esan behar badut, ez nuen uste egoera hura asko luzatuko zenik. Bi egunetan abentura hura bukatu egingo zela uste nuen, eta berriro ere Bogotan Estitxurekin elkartuko nintzela. Gertatzen ari zitzaidan guztia xehetasunez nola kontatzen nion imajinatu nuen. Hura guztia pasadizo hutsean geratuko zela pentsatu nahi nuen. Baina, aldi berean, «eta hau gehiago luzatzen bada?» zalantza ere ez nerabilen oso urrun.

Lakuaren ondoan, eserita, atsedean hartzen ari ginela, Giovanni izenekoa inguratu zitzaigun: altuera ertainekoa zen, gorputz zaildua, landua zuen, serioa zen, eta militarren mandoek erabiltzen duten txapela zeraman okerka jantzita. Banan-banan denekin hitz egin nahi zuela esan zigun.

Nire txanda ere iritsi zen.

—Gu paramilitarrak gara eta bahituak zaudete —esan zidan aurpegi serio harekin.

—Paramilitarrak al zarete? —erantzun nion—. Baina paramilitarrak ez al zarete desmobilizatzen ari, bada?

—Bai, arrazoi duzu. Baina gu banandutako talde bat gara, eta orain gaizkile bihurtu gara. La banda del Teso da gure izena. Eta esan dizudan bezala, bahituak zaudete.

—Bahituak? —entzuten ari nintzena ezin nuen sinetsi—. Eta zer eskatzen duzue gu aske uztearen truke?

—Dirua—erantzun zidan argi eta garbi Giovannik.

—Dirua... Begira, ez dakit ulertuko didazun, baina ni langile soil bat naiz. Sos gutxirekin, urte osoan herrialde batzuk ezagutzeko asmotan etorri naiz. Dirua nahi baduzue, zergatik ez zoazte Cartagenara? Zergatik ez diezue eskatzen han dauden aberatsei?

Giovannik ez zidan erantzun. Eman beharreko albistea eman zidan, eta ez zeukan zertan galdera haiei guztiei erantzun.

Ni, ordea, ez nengoen isiltzeko:

—Eta zenbat denbora iraun dezake bahiketa honek? —jarraitu nuen galdezka.

—Beno... hilabete inguru edo. Ikusiko dugu negoziatioak nola joaten diren. Eta luzerako badoa, saldu egingo zaituztegu, eta gerrillarien esku geratuko zarete —erantzun zidan Giovanni txapelokerrak, dena oso garbi pentsatuta eta planifikatuta balute bezala—. Kanpamendu batera eramango zaituztegu eta han beharrezko dituzuen gauzak izango dituzue.

—Jakín al liteke norengana jo behar duzuen dirua eskatzera?

—Gurutze Gorriarekin jarriko gara harremanetan, eta haiekin bideratuko dugu guztia.

—Ba, hemen hainbeste denbora pasatu behar badugu, janari gehixeago eta gaua pasatzeko manta batzuk ekarri beharko dizkiguzue, alajaina! —eskatu nion.

—Egon lasai, hori ere Gurutze Gorriari eskatuko diogu-eta.

«Hori ere Gurutze Gorriari! Hemen dena Gurutze Gorriak egiten du», pentsatu nuen.

Nik bezala, han zeuden atzerritar guztiek, banaka-banaka, albistearen berri izan zuten: hura bahiketa zen, eta noski, gu bahituak. Denak saiatu ginen erratuta zeudela ikusarazten, baina han inork ez zigun kasurik egiten.

Giovannirekin izandako solasaldiaz aritu ginen hizketan oraindik apenas ezagutzen ginen bahiketa-kideen artean. Guztiek ulertzen zuten gaztelania pixka bat, eta niri hizkuntza hartan zuzentzen zitzaizkidan. Beren artean ingelesez hitz egiten zuten. Reini alemaniarrek garbitasunerako tresnak eskatu zituela aipatu zidan. Orpazek, berriz, emaztea haurdun zuela eta aske utz zezatela eskatu zien (ez zen egia, baina paramilitarren baten bihotza beratzeko saiakera egin zuen israeldarrak). Baina, azkenean, elkarri animoak ematea besterik ez zitzaigun geratzen, eta horretan saiatu nintzen:

—Laster bukatuko da hau guztia, ikusiko duzue. Lasai.

Gaua laku ondoko lastozko txabolan pasatu genuen. Hotz egiten zuen. Ez zen harritzekoa: 3.800 metrotara geunden. Reini alemaniarren ordulariko altimetroak hori adierazten zuen.

Bahitzaileak, bahituak, denak elkarrekin geunden txabola berean sartuta, elkarri beroa eman nahian bezala, eta aurreko egunean ihes egindako britainiarren burutazio bera inork izan ez zezan, pisuzko argudio bat eman ziguten, badaezpada:

—Jakin ezazue gauza bat: oihan honetan lehoi bat dago. Eta britainiarra lehoiak jan du! —eskuarekin keinua egiten ziguten norbaitek ulertu ez bazuen ere. Han lehoirik ez zegoela ederki genekien, eta barreari eustea nahiko kostatzaigun.

Ihes egitea burutik azkar pasatzen den pentsamendu bat izaten da. Imajinazioarekin ospa egitea erraza da, baina norberaren begiz ariketa bera egitean, eta bukaerarik gabeko oihan itxi bat aurrean ikustean, galdera bati erantzun beharra dago:

«Norantz joan behar dut?».

Galdera horri erantzutea zaila egiten zitzaidanez, ihes egiteko asmorik ez nuen izan momentu hartan.

Goiputza hotz genuen, baina burua bero. Gau hartan hasi ginen gertatzen ari zitzaitzaz benetan jabetzen. Baita neroni ere.

«Nik aukeratu dut hona etortzea eta begira non eta zein egoeratan nagoen! Bahiturik eta auskalo non! Familiak ez du batere errurik eta begira... eta zergatik ni? Eta zergatik ez ote nuen beste leku batera joateko erabakia hartu?».

Irailak 14. 3. eguna

Goizeko 01:30 ziren. Lokartzea lortu zutenak esnatzeko garaia. Zakar altzarazi gintuzten txabola barrukoak. Presaka, korrika eta besotik tiraka mugiarazi gintuzten denak. Konturatzerako mendian behera gindoazen, ilaran, bana-bana, bahitzaile paramilitarren bat edo beste arma eskuetan hartuta ondoan genuela. Hainbeste alditan telebistan edo zineman ikusitako gerra fi lmetan bezalakoa zen egoera. Eta bahituek izaten duten aurpegi itxuragabetuarekin irudika nezakeen neure burua.

Eguerdi aldera, zuhaitzi batean bazkaltzen geratu ginen arte, ordu askoz ibili ginen. Hainbeste desiratutako otordurako, bi taldetan jarri ginen: ez inork hala jartzeko eskatu zigulako, inertziaz hala egin genuelako baizik. Hiru europarrak taldetxo batean eta lau israeldarrak bestean. Nire taldean, Mark ingelesa eta Reini alemaniarra zeuden. Indarrak berritzeko ordua zen hura, eta ez genuen elkarriketa luzerik izan. Baina hitz egin genuen gutxia gai beraren ingurukoa izan zen:

—A ze putakeria gertatzen ari zaigun!

—Ea azkar bukatzen den hau gutzia. Eta ea zerbait esaten diguten lehenbailehen.

Hirurok kezkatuta geunden. Ez genekien seguru noren eskuetan geunden, nora gindoazen eta zer gerta zitekeen gurekin. Hala ere, egoera hura ahalik eta lasaien eramaten saiatu ginen.

Bazkalondoren berriro abiatu ginen. Ez zen denbora asko pasatu euria hasterako. Errebuelta batean, lokatzezko bide batean, berriro geratzeko agindu ziguten. Aurreko egunean bezala, euritik babesteko plastiko batzuk atera zituzten bahitzaileek beren motxiletatik eta banatu egin zituzten. Hala ere, denbora eginez geldirik geratu ginen bertan. Eta hala geundela, denak aho zabalik utzi gintuen zerbait esan zuen bahitzaile paramilitarretako batek:

—Bueno, gauza bat esan behar dizuegu. Al Kaedakoak gara.

—Zer? –bahitzailearen ahotik atera ziren hitz haiek ongi ulertu ote nituen pentsatu nuen.

—Al Kaedakoak garela –errepikatu zuen–. Gu anti-imperialistak gara, Bushen kontrakoak.

Hura entzundakoan, ez nekien negar egin, barre egin, edo zer aurpegi jarri!

—A bai? Al Kaedakoak zarete? –zuzendu nintzaion hori esan zuen bahitzaileari–. Zu orduan estatu islamiar bat defendatzen ariko zara?

—Ez... ez, ez... —geratu zitzaidan bahitzailea, zer erantzun ez zekiela.

Harekin guztiarekin zerbait, behintzat, lortu zuten: nekatuta eta kezkatuta geunden atzerritar batzuegan irribarrea eragitea. Neronek ere katxondeoz hartu nuen entzundako hura. Sekula ez nuen imajinatuko halakorik entzungo nuenik Kolonbian.

Hantxe jarraitu zuten, solasaldian, ilundu arte. Bahitzaileak barrez aritu ziren. Bahitutakoari antzematen zaion beldurraz egiten zuten barre, bahituta dagoenarentzat horrek zer esan nahi duen konturatu gabe. Ezinegona areagotu egiten da, mesfi dantza handitu, ezintasuna gehitzen zaio ikarari, eta mendeku sentipena azaltzen hasten da. Gauarekin batera:

—Goazen! Aurrera egin behar dugu —agindu ziguten.

Ilun zegoen. Ez zen piperrik ikusten. Paramilitar bahitzaileek bazituzten linternak baina, auskalo zergatik, ez zituzten piztu. Horrela egin genuen aurrera. Non zapaltzen genuen ikusi gabe, baina lokatzetan gindoazela ederki konturatu.

12:30 inguruan, mendi magal batean behera zetorren erreka baten aurrean geunden, galdurik.

«Zer demontre egin nahi ote dute ordu hauetan?», pentsatu nuen.

Segituan jabetu nintzen ilunpean erreka gurutzatzeko asmoa zutela. Alde batetik bestera soka bat bota zuten. Banaka-banaka, sokari heldu, gerriraino uretan sartu eta beste alderaino pasatu ginen. Blai eginda geunden. Baina han ez zuen inork geldirik egoteko agindurik eman. Eta hori ez zitzaidan batere gustatu. Ibili bustian jarraitu genuen.

Batzuk nahi baino beranduago iritsi ginen gaua pasatzeko lekura: beste txabola bat zen, baina oraingo hau egurrez egina. Eta barruan emakume bat zegoen.

Oso haserre sartu nintzen txabolara. Ordu asko generamatzen oinez. Bustita geunden, lokatzuta eta, gainera,

goseak akabatzen. Egoera hark nire onetik atera ninduen, eta izugarri haserretu nintzen. Hura aldatzeko ezintasuna sentitzeak barrua irakiten jarri zidan. Aspaldian izan gabe-ko sentipen kontrolaezina zen. Eskerrak nire ondoko kideei; haiek lasaitu behar izan ninduten. Txabolaren barruan gela bat zegoen. Zerbait beroa eman ostean, gelan sarrarazi gintuzten atsedean hartzeko. Barruan, norbera bere txokoa hartzen ari ginela, paramilitar bahitzaileetako batek hitz egin zigun:

—Badakigu gaurkoa gogorra izan dela, baina lasai egon zaitezte: indarrak berritzeko eta deskantsatzeko, bi egunetan geratuko gara hemen!

—Egun pare bat gehiago egoera honetan eta hemen –pentsatu nuen.

Bakoitzak bere lekua hartu eta lokartzeko asmotan etzan ginen.

Irailak 15. 4. eguna

El Correo Español: «Un español y otros siete turistas, secuestrados por las FARC en Colombia».

El País: «Un turista español, secuestrado en Colombia».

El Diario Vasco: «Secuestran a ocho turistas, uno español».

Bi ordu pasatu ziren txabolako gelan etzan ginenetik. Ustekabean, sustoz, oihukatuz esnatu gintuzten:

—Esnatu denak, eta gora –esanez altxarazi gintuzten. Ez nuen ezer ulertzen.

—Baina zertan ari zarete? Ez al diguzue esan bi egunez hemen geratu behar genuela? Bi ordu besterik ez dira pasa-eta! Ez dugu deskantsatu! –bi ordu lehenagoko haserreak iraun egiten zidan oraindik eta paramilitarrak ere kon-
turatu ziren horretaz.

—Zaude isilik, eta altxa gora —ostikadak emanez altxarazi ninduten.

—Esandako ezer ez zarete betetzen ari —oihukatu nien nire onetik aterata.

—Isiltzeko esan dizut eta gora!

Talde txikitan banatu gintuzten. Reini eta ni Humberto eta Rafa paramilitarrekin abiatu ginen mendian gora. Humberto gizon nahiko garaia eta oso argala zen. Rafa, berriz, ez zen gizon garaia, nahiko argal zegoen, eta ile beltzaran kizkurra zuen. Betaurreko pastadunak erabiltzen zituen. Bidearen gogortasuna ez zen samurtu, baina nire mingaina isilarazteko adina malda ez zen hura. Ez momentu hartan behintzat:

—Baina zergatik egiten diguzue hau? Zergatik erabiltzen gaituzue horrela? —galdetzen nien Humberto eta Rafari. Erantzun bat entzun nahi nuen. Baina argibide gutxi han.

—Isiltzeko esan dizugu —erantzuten zidaten, ibiltzen jarraitzeko keinua egiten zidaten bitartean.

Amorrazio sentimendua sortzen zidan inpotentzia egoera hark, eta sentimendu horiek malkotan adierazi nituen. Amorru malkoak ziren. Amorru handikoak. Momentu haietan armaren bat eskuetan izanez gero parekoari tiro egin eta bertan akabatzeko gai sentitzen nintzen. Sentsazio hura oso gogorra egiten ari zitzaidan. Horregatik, akaso, arnasa sakon hartu eta ideia zoro haiek burutik uxatzea lortu nuen.

Nire aurretik metro batzuetara zenbait paramilitar zihoazen. Atzetik, beste hainbeste metrotara, beste batzuk. Egoera hartaz jabetuta, ihes egiteko ideia piztu zitzaidan.

«Eta ihes egiten badut? Aurreko hauek konturatzerako eta mugitzerako korrika alde egin diet. Eta atzekoek ere zorte pixka batekin ez naute ikusiko. Baina nora joan behar dut? Eskuinetara? Ezkerretara? Behe-laino itxia dago. Ihes egitea lortzen badut ere nora demontre abiatuko naiz?», pentsatu nuen. Gainera, banekien orientatzeko gabezia han-

dia nuela eta nora jo ez nekiela geratuko nintzela berandu baino lehen. Horregatik, ihes egiteko ideiari etorritako bide-tik joaten utzi nion.

Oinez denbora dezente ibili ondoren, egurrezko beste txabola batera iritsi ginen. Gailur txiki batean eraikita zegoen. Han geratu egin ginen. Bertan egin genuen lehenda-biziko otordu serioa: arroza babarrunekin. Gustura jan nuen hura.

Kanpoaldean oihana besterik ez zegoen, oihanak inguratuta geunden. 360 graduko buelta emanaz gero, dena itxura bereko ikus zitekeen, zuhaitzez betetako oihan itxi hark ehunka sarrera izango balitu bezala. Hainbestekoa zen, ordea, landaredia, irudikatu egin behar zen atzean zer egon ote zitekeen.

Txabolatik ez oso urrun mangera bat zegoen. Ondotik pasatzen zen erreka batetik hartzen zuen ura. Arropak garbitzeko erabili genuen. Zereginak amaitu ondoren txabola barruko gela batean sartu gintuzten bahituak. Aldamenekoan, berriz, bahitzaileak jarri ziren. Momentu hura erlaxatu samarra izatea ere lortu genuen: guztiok genuen paramilitar bahitzailearen batek esan edo egindako zerbaiten inguruko pasadizoren bat. Barre pixka bat egin genuen otordu ondorenean. Mark arduratzen zen bere umore ingelesarekin egoera hori sortzeaz. Askotan ingelesez egiten zieten barre aurpegira militar haiei eta nik ere ez nituen ongi ulertzen, baina terapia moduko bat zen taldearentzat. Hainbestetan entzunda neukan *barreterapia* zer zen orduan hasi nintzen ulertzen.

Txabolara iritsi aurretik izandako ihes egiteko tentazioaz ere hitz egin genuen. Denei kontatu nien nola mendian behera ihesi joateko burutazioa izan nuen, baina segituan jabetu nintzela hura txorakeria handia izango zela. Ez nintzen pentsamendu hori izan nuen bakarra: israeldarretatik bik, Orpaz eta Benik, laku ondoko txabolan egin zuten saia-

kera kontatu zuten. Txiza egiteko aitzakiarekin inguruan zegoen errekarera eraman omen zituzten eta han saiatu ziren ihes egiten. Azkenean ahalegin hutsean geratu zen guztia. Aukera izanez gero, hurrengoan ere egingo zuten israeldar haiek. Europarrok, ordea, garbi genuen ezetz.

«Hara hortxe europarron eta israeldarren arteko desberdintasun bat», pentsatu nuen.

Gure egoerari buruzko gauza berririk ez genuen egun hartan jakin, baina zerbaitez konturatu ginen: han ordezkatuta geunden enbaxada guztiek, beren herritarrak aske uzteagatik, dirua ordainduko zuten uste osoa zuten paramilitar haiek.

Gauean zehar lotan geunden gelara sartzen ziren noizean behin eta, denak han ote geunden jakite aldera, kontatu egiten gintuzten.

Irailak 16. 5. eguna

Deia: «La guerrilla de las FARC secuestra a un vasco y siete turistas más en Colombia».

El Mundo: «Un vasco entre los extranjeros secuestrados en Colombia».

El Correo Español: «Un donostiarra de 29 años es uno de los ocho secuestrados por la guerrilla colombiana. Asier Huegun, hermano de un exjugador del Athletic, había cogido un año sabático para recorrer Sudamérica. Fue capturado junto a israelíes y británicos».

El Diario Vasco: «Uno de los ocho secuestrados en Colombia por las FARC es un donostiarra de 29 años». «¿A quién llamo para que me arregle esto? La familia de Asier Huegun se debatía entre la impotencia y la perplejidad al conocer la noticia».

El País: «1.500 soldados de Colombia buscan a los turistas capturados por la guerrilla».

Gara: «Secuestrado en Colombia el donostiarra Asier Huegun y otros siete extranjeros».

Berria: «Asier Huegun donostiarra da Kolonbian bahitu dutenetako bat».

Aurreko egunean bezala, oso modu txarrean esnatu gintuzten denak. Zakarkeria horretan, Giovanni txapelokerrak Erez israeldarrari betaurrekoak hautsi zizkion. Izugarri haserretu zen Erez. Bere onetik ateratzeraino. Izan ere, betaurrekoak beharrezkoak zituen ikusteko. Giro petraldu hura lasaitzen saiatu nintzen:

—Zaudete lasai –zuzendu nintzaiei bahitzaileei–, gure denbora behar dugu gauzak jasotzeko. Segituan jasoko ditugu, baina egon zaitezte lasai.

Hitz haiek barrutik atera zitzaizkidan. Egoera hark une batetik bestera okerrera egin zezakeela ikusten bainuen. Neronek zenbait momentutan sentitutako haserrea, bat-bateko beroaldiak, ez ziren onak egoera hartan. Galtzeko guztiak guk geneuzkala jabetu nintzen.

Erezek orduan:

—Ni ezin naiz azkarrago joan. Akaba nazazue hementxe bertan. Hil nazazue!

Gutziz serio esan zuen esaldi hura Erezek. Eta gainontzekook bagenekien, hori esaterako, nola sentitzen zen israel-darra. Norbaitek ulertzekotan guk ulertu genuen. Fisikoki jota. Baina baten eta bestearen hitzekin, giroa lasaitzea lortu genuen. Gauzak jaso ostean, maldan behera abiatu ginen oihan hartan barrena. Oraingo honetan ere lokaztua zegoen bidea. Minik hartu nahi ez zuenak eskuak erabili zituen hirugarren eta laugarren hanka gisa. Beso eta eskuetan geratu zitzaizkigun arrastoak ziren jaitsiera zail haren frogak.

Halako batean, atzera begiratu nuen, eta Rafa bahitzaila, pastazko betaurrekoak erabiltzen zituena, ikusi nuen Reini metrailetarekin mehatxatzen. Zerbait gertatzen ari zen. Reinik eskuetan harri bat zeukala konturatu nintzen:

—Harria botatzeko esan dizut —oihukatu zion Rafak armarekin mehatxatzen zuen bitartean.

—Hemendik pasatzeko erabili nahi dut —erantzun zion Reinik, urduri.

—Bota ezazu oraintxe bertan —Rafak berriro, metraileta alemaniarrarengana zuzenduz.

Reinik harria errekan jarri nahi zuen busti gabe pasatu ahal izateko. Rafak harriarekin bera jo nahi zuela uste izan zuen. Bat-batean tentsioak gora egin zuen, baita nire bihotz taupadek ere. Reinik harria lurlean utzi zuen.

Gaizki ulertu hark sortutako estres ueña baretu ostean, aurrera jarraitu genuen. Beherako bidea bukatu eta maldan gora egin genuen berriro: baso itsu batean sartu ginen. Konturatzeko galduta geratu ginen. Motxiletan ondo gordeta edo gerritik zintzilik zeuzkaten matxeteak atera zituzten bahitzaileek bidea zabaltzeko. Harrigarria zen haiek erabiltzeko zer-nolako abilezia zuten. Ez nien begirik kentzen. Vietnamgo gudari buruz egindako hainbat filmetako irudiak ikusten ari nintzela iruditu zitzaidan: zuhaitzek erakusten ziguten ihesbide bakarra izan zitekeen zeruko bidea. Landaretza, beretzat harrapatu nahi bagintu bezala, gainera erortzen zitzaigun. Belarki luze eta bilduek itsutu egiten gintuzten, eta ez ziguten metro batera zer zegoen ikusten uzten. Eta usaina, berde hezeak duen berezko usaina, sekula hain bizi sumatu gabekoa zen niretzat.

Bidea zabaltzen zuten bitartean, lurlean eserita egon ginen, norbera bere pentsamenduetan murgilduta. Une hartan, egoera hartan, beldurra sentitu nuen. Baso itxi haren erdian, galduta, bidea zabaltzen nahian zebiltzan bahitzaileen

antzera, neronek ere egoera itxi eta ezezagun hartan bidezidoren bat aurkitu nahi nuen, baina han ez zen ezer ageri.

Denbora dezenteren ostean, oihanetik ateratzea lortu genuen eta lurrezko bide bat hartu genuen. Bide bazterrean egurrezko oholekin egindako nekazarien txabola bat zegoen, eta atarian adineko emakume bat. Bahitu gintuztenetik ikusi nuen lehendabiziko zibila. Uniformez jantzitako hamabost bat bahitzaile, metrailetekin, eta erdian, zein baino zein aurpegi atzeritarragoa zuten zazpi pertsona pasatu ginen haren aurretik. Hori zen une hartako argazkia. Baina egunero gauza bera ikusiko balu bezala, irribarre goxoa oparitu zigun emakumeak, buruarekin diosala egin, agurtu eta atzean utzi genuen txabola hura eta baita han zeudenak ere.

«Eta ez jakin, elkar ezagutzen ote duten edo ez», pentsatu nuen txabola atzean uzten nuen bitartean.

Ondo baino hobeto nekien emakume hark ez zuela ezer esango, ez ziola inori ikusitakoaren berri emango. «Bahituta gaude. Ni Asier naiz. Euskal Herrikoa. Esaiozu norbaiti» oihukatzeke gogoia sentitu nuen, baina egoera hartan ezin nuen ezer egin. Ezertxo ere ez. Eta horrek inpotentzia sentimendua sortu zidan.

Ez nintzen izan horrela sentitu nintzen bakarra. Reini, atzerago, negarrez zetorren! Lehenagotik Rafarekin izandako tentsio uneak ere, seguruenera, bere partea izango zuen malko haietan.

Beste txabola batzuetara iritsi ginen. Han, berriz, lehenengo haurrak ikusi genituen. Hiru ziren eta elkarrekin jolasten ari ziren. Eta une batez, haien jolaseko protagonista sentitu nintzen, ondotik pasatzean begira-begira geratu baitzitzaizkigun.

Oraingoan ere Mark, Reini eta ni gindoazen aurretik, elkarren artean distantzia pixka bat utziz. Israeldarrak oso atzera zetozen. Orpaz eta Benik mendiko botak zituzten jantzita, baina Idorenak oinetako oso fi nak ziren, ez ziren men-

dirako aproposak, eta segituan hautsi zitzaizkion. Baldintza horietan oinez ibiltzea oso gogorra egiten ari zitzaion.

Horregatik, askotan, aurreko hirukotea atzeko laukotearen zain geratzen ginen. Une hartan ere israeldarren zain geunden. Samuel paramilitar bahitzailearekin hizketan hasi nintzen. Gizon txikia eta gihartsua zen. Eta arma eskuetan zuenean inor baino ausartago eta indartsuago sentitzen zen. Egia da armek boteretsuago sentiarazten dutela, nonbait. Bakarrik ibiltzen zen askotan:

—Diruagatik bakarrik hartu al gaituzue? Beste arrazoi-
ren bat egongo da, ezta? —galdetu nion.

—Zaude isilik —erantzun zidan Samuelek.

—Baina ez al duzue erantzun behar? Zergatik gaude
hemen? —jarraitu nuen galdezka.

—Begira, nazkatuta nago. Kexua besterik ez duzu.
Isiltzen ez bazara, hor dagoen oihal hori baino zuriago at-
rako zara hemendik —izan zen Samuelen erantzun gogorra.

—Bai, bai.. horrela lortzen dituzue gauzak, mehatxatuz
—errematatu nuen. Eta isildu egin nintzen, ze egoera hartan,
Samuelen jarrera harekin gerta zitekeenak ikara ematen
zidan. Eta Donostiako lagun batek esaten duen moduan,
hilerriak jende ausartez beteta daude. Ez nintzen ni bat
gehiago izango.

Alferrik zen. Edozer galdetuta ere, itxura hartako eran-
tzunak jasotzen nituen. Gertatzen ari zenaz oso informazio
gutxi nuen, eta jakin egin nahi nituen arrazoiak, helburuak,
xehetasunak: informazio gosea nuen. Baina ordura arteko
nire ahaleginak horretan geratu ziren, ahalegin hutsean.

Bidezidor bat hartzeko agindu zidaten. Ingurua mendi-
tsua eta oihantsua zen eta oso berdea. Bidearen bukaeran
zegoen txabolatik bailara guztia ikusten zen, eta eguzkia
mendien atzean nola ezkutatzen zen gozatzeko modua izan
nuen. Paregabea. Erizaina zela esan zigun emakume batek.
Banan-banan, norberak bere zauriak erakutsi eta bahitzai-

leek eta bahituok motxilan generamatzan botikak erabiliz, zauriak sendatu zizkigun.

Batzuk lan honetan ari ginen bitartean, beste uniformedun batzuek lotarako lekua prestatu ziguten: plastikoa bota azpian, palma hostoak haren gainean, eta mantak azkenik. Momentu batean, gaua pasatzeko ohea eginda zegoen. Eskerrak nire amak egindako marroi koloreko estalkiari, eta, batez ere, giza gorputzen beroari. Gau hartan ere hotz egin zuen. Elkarren kontra pega-pega eginda jarri ginen. Baina, hala ere, aldamenekoaren hortz kraskakoak ederki entzun nituen.

Irailak 17. 6. eguna

El Diario Vasco: «La familia intenta mantener la calma a la espera de noticias. El joven contactó por última vez con sus padres y hermanos desde Cartagena de Indias».

Deia: «Asier Huegun es joven y fuerte, el mejor caminante de mi grupo, dice su guía. El defensor del Pueblo colombiano pide al ejército que la acción legítima de rescate no afecte ni ponga en riesgo la vida e integridad de los cautivos».

Gara: «Continúa la incertidumbre sobre el secuestro de Asier Huegun en Colombia. Se cree que la retención pueda ser obra de once guerrilleros, pero no hay reivindicación».

El Mundo: «Bogotá moviliza a 2.000 soldados para rescatar a los ocho turistas europeos».

El Correo Español: «Los secuestradores se llevaron a los ocho turistas con mejor forma física. El rapto del donostiarra Asier Huegun y siete de sus compañeros fue cometido por un comando de las FARC formado por once guerrilleros».

Oso goiz abiatu ginen. Reini alemaniarrekin batera nindoan oinez. Aurreko egunetako gauza berbera egingo genuen irudipena nuen. Baina segituan konturatu nintzen egun bakoitzak bere ukitua eta bere ezustekoak zituela. Are gehiago bahiketa batean.

Oihanean oinez gindoazela, Reini gaizki sentitzen hasi zen. Ahuleziak jota, lurrean geratu zen. Dardarka ari zen. Begiak jiratuta zeuzkan. Eta, jakina, Reini egoera hartan ikustean, asko beldurtu nintzen. Ez nekien zer egin. Eta ondoan nituen paramilitarrek ere ez, nonbait. Kezka aurpegian, alemaniarri begira geratu ziren.

—Faborez! Zerbait egingo al duzue?! —oihu egin nien urduri.

Konturatzera, eta akaso kasualitatez, erizaina hantxe zegoen. Reinirengana hurbildu zen, eta bere lana egiten hasi zen.

—Ea, zu, segi aurrera! —agindu zidaten, armarekin aurrera egiteko keinua egingez. Bideari jarraitu beste erremediorik ez nuen izan. Ez nengoen, ordea, lasai. Reiniren egoerak kezkatu egin ninduen. Eta paramilitar haien jarrera pasiboak, berriz, sutu.

—Zuen armak bakarrik inporta zaizkizue. Horiek garbitzen pasatzen duzue denbora! Eta gainontzeko guztia zer?

Aurrera egin genuen.

Bahitzaileek ezizen bat ere jarri zidaten. *España* esaten zidaten gehienetan. Entzuten nuen bakoitzean, sentimendu asko pizten zizkidan.

Norbaitek «*España!*» esaten bazidan «*Una grande y libre*» erantzuten nuen. Bahiketa hartan, une hartan bizitzen ari nintzen ezjakintasun egoeraren eraginez, zenbaiten aurrean euskaldun nortasuna ez aipatzea hobea zela iruditu zitzaidan, eta horregatik ezkutuan gorde nuen nire herritartasuna.

Mendian behera gindoazela, Rafaren ahots larritua entzun nuen:

—Utzi pasatzen, utzi pasatzen! —oihukatuz zetorren, eta Reini gainean zeraman, panpina baten moduan. Gure aurretik korrika pasatu zen. Zer gertatzen zen jakite aldera, laguntza emateko, bere atzetik lasterka ateratzeko tentazioa sentitu nuen une batez, baina hori eginez gero gainontzeko bahitzailak urduri jarriko nituela eta tiroren bat jasotzeko arriskua nuela pentsatu nuen hoztasunez. Beldurrak harrapatu ninduen: ni ere edozein unetan egoera horretan egon nintekeela ikusteak izua, kezka eta inpotentzia sortu zizkidan. Eta hiru sentimendu horien konbinazioa ez da batere atsegina izaten.

Gau hura pasatzeko prestatuta zeukaten kanpamendura iritsi ginen: laua zen lurra eta kanpadenda moduko batzuk jarri zituzten bahitzaileek. *Cambuche* esaten dieten dendak ziren: plastikoa izaten du lurrean eta estalkia gainean, eta alde guztiak irekita izaten ditu. Euskal Herrian pankartak egiteko hainbeste erabiltzen den plastiko mota bera zen lehengai nagusia. Beltza. Denda batetik bestera distantzia utzi zuten.

Berehala konturatu ginen Reini ez zegoela han. Ez geneukan haren berririk, eta galdetuta ere ez ziguten non zegoen esaten.

Luze egin zitzaizkigun denoi alemaniarra agertu arteko minutu haiek guztiak. Parez pare agertu zen bat-batean, itxura batean osasuntsu. Egia esan, zutik eta onik ikustean, lasaitu egin ginen. Taldera batu zen.

—Ezer jan gabe bi edo hiru ordu pasatzen baditut, horrelako beheraldiak izateko joera dut —argitu zigun alemaniarak. Ordura arte, inork ez genuen horren berririk. Inori ez baitzion aipatu Reinik zer gertatzen zitzaion. Handik aurrera jakinaren gainean geunden denak.

Batez ere, nik hartu nuen sustoa gainetik kentze aldera, eta tentsioz betetako egoera haiek bota eta kanporatzeko,

paramilitar bakoitzari buruzko komentarioak egiten hasi ginen denen artean:

—Konturatu al zarete nola egiten duen honek herren?

—Ba al dakizu zer esan didan horko txiki horrek?

—Konturatzen al zarete, hiruzpalau bahitzailei hatzen bat falta zaiela?

Gisa horretako komentarioak egin genituen. Gerora jakingo bagenuen ere, une hartan ez genuen pentsatu ere egin galdutako hatz bakoitzak bere historia, arrazoa eta oinazea zeuzkala.

Tertulia horretan ari ginela, bahitzaileak etorri eta motxilak eskatu zizkiguten denoi. Inori ez zitzaigun gustatu hura, baina protesta eta kexuek ez zuten ezertarako balio izan. Denak hartu zituzten, eta bakoitzari zenbait gauza kendu zizkiguten. Niri Hego Amerikako mapa bat, erabilera anitzeko labana, 50.000 peso, kameraren pilak, jostorrazak, katekorrazak eta ordura arteko esperientzia eta gogoetak idazten ari nintzen koaderno urdina kendu zizkidaten. Gainontzekoei ere beste hainbeste: kamerak, labanak, dokumentazioa...

Israeldarren taldeak, motxila kendu aurretik, ezkutuan zenbait gauza gordetzeko aukera izan zuen: ezkutuko gerriko batean gorde zituzten dirua, labanak eta zenbait paper. Operazio hura guztia inork jakin gabe egin zuten. Mark, Reini eta neroni ere ez ginen konturatu, eta aste batzuk geroago arte ez genuen ezer jakin.

Une hartan, bahitzaile haien buru egiten zuena ere han inguruan zebilen. Gizon sendoa zen. Burusoila. Hurbildu egin nintzaion.

—Zergatik kendu dizkiguzue gauza hauek guztiak?

—Egon lasai, leku seguru batera goaz. Kanpamendu batera, eta hara iritsitakoan negoziazio lanetan hasiko gara. Nor zareten jakiteko kendu dizuegu dokumentazioa.

—Eta orduan liburuxka urdina zertarako kendu didazue? –jarraitu nuen galdezka.

—Nor zaren ikusteko.

—Liburuxkaren erdian dago nire pasaportearen fotokopia. Hartu hori, eta itzuliko al zenidake, mesedez, koaderno?

—Esaten duzuna egia bada, itzuliko dizugu.

Kasik seguru nengoen koaderno urdina goitik behera miatuko zutela paramilitar bahitzaileek. Baina irakurtzen hasiz gero, ez zuten tutik ere ulertuko. Han idatzitako guztia euskaraz zegoen. Akaso, horregatik itzuli zidaten koaderno hain azkar. Garrantzi handia zuen hark niretzat. Hainbat telefono, helbide eta aurretik Ekuadorren izandako bizipenak nituen jasota bertan. Zorionez, azkar bueltatu zidaten.

Gau hura ere oso hotza izan zen.

Irailak 18. 7. eguna

El Diario Vasco: «La guerrilla colombiana sigue unas pautas previsibles para intentar rentabilizar al máximo los secuestros. A Asier le estarán llevando a un refugio seguro en la selva».

El Mundo: «El ejército colombiano atribuye al ELN el secuestro del donostiarra Asier Huegun. Las FARC niegan la autoría del rapto y denuncian un montaje de la inteligencia militar».

Gara: «Las FARC niegan la autoría de la retención de los ocho extranjeros». «Tres móviles posibles. De las FARC y el ELN se podría esperar un móvil político o económico en este secuestro. A los paramilitares les movería el dinero y al ejército la necesidad de publicidad».

Berria: «Bahiketa ELNk egin duela dio orain armadak, eta ez FARCEK. FARCEkoek Interneten hedatu dutenez, Kolonbiako armadak berak bahitu ditu zortzi turistak».

03:30 izango ziren. Eguneroko esnaera bera:

—Goazen, goazen, mugi... *¡Pilas, pilas, pilas!*—esanez.

Hotz izugarria egiten zuen. Jendeari begiratu besterik ez zegoen: dardarka geunden denak, eta hortzen dardara ikusi eta entzun zitekeen. Bakoitzak bere trasteak jaso bagenituen ere, han inork ez zuen abiatzeko agindua ematen. Azkar altxarazi gintuzten lotatik, baina, harrigarria bazen ere, lurrean eserita jarri, mantak bizkar gainera bota eta geldirik geunden denak, norbaitek kontrakoa esan zain. Han geure borondatearen kontra geunden guztion harridurarako, egonaldi hura izugarri luzatu zen. Geldirik, hotzez, dardarez, nekatuta, eguerdiko 12:30 arte egon behar izan genuen. Zer ikusi handirik ere ez genuen distrakziorako: oihana eta bahitzaileak. Bederatzi orduren ondoren abiatu ginen. Manta gainera botata, dardarka, hotzez, eta berriro ere, oso haserre nengoen.

Bezperan Reiniri gertatu zitzaionaz jabetuta, asto bat lortu zuten harentzat. Haren gainean jarri, eta esandako orduan, bide ezezagun haietan aurrera egin genuen.

Hainbeste ordutan esna eta geldirik egon behar, eta nire pentsamendutan murgilduta egon beste erremediorik ez nuen izan. Kezka gehiegi nituen buruan. Horregatik, ibiltzen hasi ginenean, eta burua beste nonbait izate aldera, kantari hasi nintzen. *Un cañón acaricia mi espalda, un temblor se apodera de mí* –RIPEN kanta– eta *Hegoak ebaki banizkio* –Laboaren kanta– kantatu nituen.

Nire atzetik zetorren Samuel izeneko bahitzaile txiki gihartsuak harriduraz begiratu zidan kantuan entzun nindueanean. Besteak beste, abesten ari nintzen kantu bakar bat ere ez zuelako ezagutzen, eta horietako bat hizkuntza ezezagun batean abesten nuelako. Nola sentitzen nintzen adierazteko modua zen kantu haiek ahotan hartzea: beldurra, askatasun nahia...

Hain justu ere, Samueli galdetu nion bidean, ironia handiz:

—Zer, ez al dago hemen gerrillariekin *balacerarik*, tata-tatatata?

Samuelek entzun eta ulertu ere egin zidan, baina ez zidan erantzun. Jarrera hark ere ez ninduen askorik harritu. Aurrekoetan ere, halako galdera eta probokazioen aurrean ez zuten txintik ere esaten. Eta orduko hura ere ez zen salbuespena izan.

Egia esan behar badut, nahasmendu handi samarra nuen buruan. Paramilitarrak zirela esan bazidaten ere, gezurretan ari ziren susmoa nuen. Baina paramilitarrak ez baziren, zer ziren? Garbi neukan ez zirela armadako soldaduak. Gerrillariak ere izan zitezkeen, baina ordura arte ikusi nituen jokaerak eta gurekiko tratua ez zetozen bat giza esku-bideen defentsarekin, ez eta beren borroka egiteko moduarekin ere. Gauzak horrela, gaizkile arrunten aukera besterik ez zitzaidan geratzen. Eta seguruenera hala izango zirela pentsatu nuen. Baina zalantza handiak nituen.

Begi bistan genuen txabola hura kafe landarez inguratua zegoen. Barruan ganbara handi samar bat zuen. Eta bertako paretak egunkari orriz josita zeuden: Los fabulosos Cadillacs taldearen kontzertua iragartzen zuen horietako batek!

Elkarren segidan, denak iristen joan ginen. Reini ere bai. Jota iritsi zen: hotzak, euriak eta astoaren dinbili-danbalak ez zion batere mesederik egin. Minbera zuen gorputz guztia. Baina nekeari eta min haiei aurre egiteko, ezusteko atsegin bat izan genuen.

Txabolaren kanpoaldean mangera bat zegoen, eta han dutxa bat har genezakeela esan ziguten: mendiko ur hotza zen, baina ez zuen axola. Xaboiarekin egun haietako guztietako zikinak garbitzeak, gorputza bustitzeak, izugarrizko mesedea egin zigun. Ordura arteko tentsioak, kezkak eta beldurak ur zikinekin mendian behera zihoazela sentitu nuen.

Plazer momentua izan zen. Kasik hitzekin deskribatu ezin litekeen plazera!

Afaria prestatu zain nengoen bitartean, lehendabiziko dutxa haren eraginez edo hark emandako erlaxazio puntua-gatik, erabaki garrantzitsu bat hartu nuen:

«Hau guztia bukatzean, Euskal Herrira, etxera bueltatu-ko naiz».

Txile, Bolivia, Argentina eta beste zenbait herrialde ikus-teko nituen asmoak alde batera utzi, eta etxera bueltatuko nintzen. Gertatzen ari zena handi samarra zen nire familia eta ingurukoentzat, eta ez zitzaidan bidezkoa iruditzen nire bidaiarekin jarraitzea.

Afaldu ostean, solasaldi lasai baten ondoren, ganbarara igo ginen, eta lo hartu genuen. Gaua, behintzat, lasaia izan zen.

Irailak 19. 8. eguna

El Diario Vasco: «El ejército colombiano intenta bloquear a la guerrilla antes de que llegue a un refugio. Los secuestradores saquearon un poblado indígena. El cónsul de España viaja a la zona del secuestro».

El Mundo: «La suerte de Asier Huegun. El ELN, presunto autor del secuestro, no mata a sus rehenes porque busca sacar buen botín».

Deia: «La embajadora de Colombia visitará a la familia Huegun. Sin novedades en el rastreo del Ejército ni en torno a la autoría del secuestro».

Beria: «Bahitzaileak nor diren argitzeke jarraitzen dute. Asier Huegun eta beste zazpi turistak Perija mendile-rrora daramatzatela dio Armadak».

Txabola kanpoaldeko mangerarekin arropa garbitu genuen goiz hartan. Lehortzeko ere eguzki goxo egiten zuen, eta hura ez zen alferrik galtzeko aukera. Han inork ez genekien noiz izango genuen hori egiteko hurrengo aukera.

Mark, Reini eta hirurok hizketan egon ginen eguzkipe goxo hartan. Harrigarria bazen ere, goiz hartan ere, beste talde bat izango balira bezala, lau israeldarrak alde batera elkarrekin jarri ziren.

Goiz hark ez zuen beste munduko ezer eman. Eguzkitan etzanda egon ginen denak. Bide batez, atsedean hartzeko ere ez zitzaigun batere gaizki etorri.

Bazkaldu ere han egin genuen, eta otordua bukatu zenean, soldaduak asto mordo batekin azaldu zitzaizkigun: denentzako bazeuden. Hainbeste batera ikusteak irudi benetan bitxia osatzen zuen, komikoa ere esango nuke. Nik eta gainontzekoek ere barre nahiko egin genuen soldadu haiek astoei tiraka ikustean.

Kanpamendua altxatu, eta bakoitza bere asto gainera igo ginen. Haien pausajea abiatu ginen!

Halako batean, bidean zibil batzuekin gurutzatu ginen. Normala den bezala, harriduraz begiratu gintuzten zibilek. Segituan inguratu zen Giovanni txapelokerra haiengana:

—Ez duzue ezer ikusi, ados? Ez gero ezer esan!

Buruarekin baietz egin zuten zibilek, eta aurrera egin genuen.

Arratsalde hartan ere, eguneroko legez, euria hasi zuen. Eta hori gutxi balitz bezala, erreka batekin egin genuen topo. Erremediorik gabe, handik pasatu beharra zegoen. Erreka gurutzatu beharra zegoen. Segituan konturatu nintzen, erreka busti gabe nola pasa pentsatuta zeukatela eta baita prestatuta ere: alde batetik bestera altzairuzko kable bat zeukaten botata, eta kabletik zintzilik karrotxo bat. Banaka-banaka, han sartu eta kableari tiraka erreka alde batetik bestera pasatu ginen denak. Hori bai, astoek eta zen-

bait soldaduk busti egin behar izan zuten. Haiek erreka uretatik gurutzatu zuten. Asto bat ia urak eramane zuten, baina azkenean ez zen ezbeharrik gertatu.

Erreka pasatu ostean, berriro asto gainean jarri eta maldan gora abiatu ginen. Lokatza, harriak, denetatik zegoen bide hartan. Euriak ez zuten ateraldirik eman, eta astoei izugarri zaila egiten zitzairen aurrera egitea. Nire astoa bi aldiz lurrera erortzeko zorian egon zen, eta hirugarrenean erori egin zen. Zorionez, ez genuen minik hartu. Baina bide hura astoarentzat gehiegizkoa zelako, indarririk ez zuelako edo egoskeriaz, nire astoak pot egin zuten; ezin zuten ez aurrera ez atzera egin.

—Oinez jarraitu beharko duzu —esan zidaten. Lehendabiziko pausoak eman bezain azkar konturatu nintzen, hotzaren ondorioz, eta asto gainean ordu batzuk bidaiatzearen eraginez, hezurak gogor-gogor eginda neuzkela. Kosta egiten zitzaidan pausoa ematea. Ezin nuen aurrera egin. Astoa eta biok, pareko une hartan. Baina bahitzaillek, beste behin ere, ez zuten egoera ulertzen jakin.

—Mugitu! Aurrera egiteko esan dizugu! —oihukatzen zidaten, zakar bultzatuz.

Momentu hartan mehatxu haiek entzun beharrak eta gorputzaren ezinak amorrazio sentimendu izugarria sortu zidaten. Indarrak atera nituen eta iritsi nintzen maldaren bukaeran zegoen egurrezko txabolaraino. Bahiketa-kide denak ere ni bezain gaizki zeudela berehala konturatu nintzen eta egoera hark gaintu egin ninduen. Zuzenean txabolara gerturatu nintzen, eta buruarekin egurrari danbatekoak ematen hasi nintzen. Konturatzeko soldaduak gainean nituen.

—Zertan ari zara? Zaude geldirik! —oihukatu zidaten.

—Hau egiten dut, bestela zu harrapatuko zaitudalako —erantzun nion. Barruan sentitzen nuen amorrazio hura nonbaitetik atera beharra neukan, eta modu bat baino gehiago

banituen ere, txabola buruarekin jotzearen aldeko apustua egin nuen. Ez dakit zergatik, baina hala egin nuen.

Bahitzaileek, egoera ulertu nahi zuen bakarren baten salbuespena kenduta, irribarre txikiak egiten jarraitu zuten, egoera hark grazia egingo balie bezala. Horren aurrean, Reinik ere eztanda egin zuen: bi aldiz pentsatu gabe, parean zuen Hunberto izeneko soldadua jotzera salto egin zuen. Mark eta biok segituan jabetu ginen Reini alemaniarren asmoez, eta heldu egin genion. Ez zen Hunbertorengana iritsi. Baina ailegatu izan balitz, auskalo zer gerta zitekeen. Tentsio handia zegoen une hartan. Beroaldi handia. Zerutik erortzen zen euriak ere ez zuen giro hura freskatzen laguntzen. Horregatik, han geratzeko erabakia hartu zuten bahitzaileek. Txabolako atea indarrez bota zuten, eta barrura sartu ziren. Barruan bi gela zituen; bat bahitutakooi utzi ziguten eta bestea bahitzaileek hartu zuten.

Aterpera sartu ginen denak. Motxilak lurrian utzi genituen. Minutu batzuk behar izan genituen denak lasaitzeko. Neroni ere baretu nintzen. Baina azken egunetan haziz joan zen amorrazioa eta inpotentzia barruan sendo nituen. Kolpeak kolpe, banekien ez nuela lortu haiek gainetik kentzea.

Goitik behera bustita geundenez, arropak lehortzen jarri genituen.

—Asier, kopetan kozkorra atera zaizu, eta ubeldua ere bai kolpeagatik. Mijail Gorbachoven antza daukazu —esan zidan Mark ingelesak. Han zeuden batzuei irribarre bat lapurtzeko behintzat balio izan zuen aipamen hark.

Konturatzerako gaua zen. Eta ez zen batere gau lasaia izan, gainera: Beni eta Orpaz komunera joateko aitzakiarekin kanpora atera ziren. Gaueko iluntasunaren laguntzarekin, ihes egiteko asmoa zuten. Baina paramilitar bahitzaileek harrapatu egin zituzten berriro ere. Ahalegin hutsean geratu zen guztia. Barruan lotan edo lo egin nahian geunden

gainontzeko bahiketa-kideok ez genuen saio horren berri izan hurrengo egunera arte.

Irailak 20. 9. eguna

Deia: «Gasteiz ofrece todos sus medios a Asier Huegun. El Gobierno vasco expresa su apoyo incondicional a la familia del donostiarra».

Goizeko laurak aldera etorri zen ustekabea: bahitzaileen aginduz esnatu gintuztenean, eta nire motxila egiten hasi nintzenean, bezperan zintzilik lehortzen utzitako galtzontzilo beltzak, gorputzari itsatsita geratzen diren horietakoak, falta zirela konturatu nintzen. Norbaitek lapurtu egin zizkidan. Segituan galdetu nion bati eta besteari haietakoren batek hartu ote zituen, baina alferrik izan zen: beraiek ez zituztela hartu erantzun zidaten guztiek.

Beste egoera batean, galtzontzilo baten falta ez zen hain larria izango, baina oso arropa gutxirekin nengoela kontuan hartuta, urrea balio zuen barruko arropa hark. Eguneroko bizimoduan garrantzirik izango ez lukeen desagertze batek beste maila bat hartzen zuen mendi haietan, egoera hartan.

Egun hartan astoei jai eman zieten. Hantxe geratu ziren haiek, eta oinez abiatu ginen gu: motxilak bizkarrean hartuta, mendian gora. Goizeko zortziak aldera, ordura arte inoiz ikusi gabeko kanpamendu batera iritsi ginen: kanpamendu inprobisatu bat zen.

Kanpamendu hura eremu zabal samar batean kokatua zegoen: plastikozko kanpadendak zeuden denean sakabana-tuta. Batzuk gorago, besteak beherago, eta iturri bat erdian. Bahitutakoak kontatuta, guztira 25 bat pertsona elkartu ginen leku hartan. Eta denak iritsi bezain azkar, bi taldetan

banatu gintuzten: alde batetik, Mark, Erez, Orpaz eta laurok, eta bestetik, Reini, Beni eta Ido.

Banaketa hori zergatik egin zuten jakin nahi nuen, eta, nola ez, galdetu egin nuen:

—Segurtasunagatik —izan zen erantzuna. Baina hori nahiko arrazoi ez zen niretzat. Metrailetak eskuetan zituzten bahitzaile mordo batez inguratuta geunden, eta handik ihes egitea ia ezinezkoa zela itsu batek ere ikus zezakeen.

—Beni eta Orpaz elkarrekin jartzea ere arriskutsu samarra dela iruditzen zaigu, eta horregatik bi taldetan banandu zaituztegu —esan zigun beste paramilitar batek.

Jarrera arriskutsuak omen zituztela zioten. Niretzat ez zen pisuzko arrazoa. Momentu hartan, eta argudio haiek entzunda, oso garbi ikusi nuen zergatia:

—Min egin nahi digute.

Nire taldea karpa handi batera eraman zuten. Bi zatitan banatua zegoen barrutik, eta egurrezko taula batzuekin egindako oheak zeuden. Egurraren gogortasuna samurtzeko, haien gainean palmondo hostoak jarri zituzten, eta gainetik mantak bota zituzten. Oheak eginda zeuden. Ez ziren nahi bezain erosoak, baina lurrean lo egin ostean, eskertu egiten zen halako asmakizun bat.

Hara sartu eta ahal izan genuen bezain azkar etzan ginen. Bakoitza bere ohean. Denbora pasa, norbera bere pentsamenduetan barneratu ginen. Bazegoen-eta zertaz pentsatua!

Horrela geundela, Miguelin izeneko zaindaria etorri zitzaigun: 14 bat urte zituen. Handia zen mutila, altua. Begirada samurra eta maltzurkeriarik gabea zuen, eta irribarretsu zegoen. Baina pistola zeraman eskuan. Nik ikaraturik begiratu nion, eta gauza bakarra etorri zitzaidan burura:

—Gaizkile arriskutsuak izango bagina bezala ari zaigu begira. Ume mukizu halakoa!

Oso zaintzaile gazteak genituen inguruan, eta ezinbestean, sentimendu hori etortzen zitzaidan burura. Baina horri

aurre egiteko modua ere aurkitu genuen. Aurreko egunetan zenbait momentutan ikasi genuen bezala, barre egitea zen terapiarik onena. Adibidez, herrena zen beste bahitzaile baten kontura. Metro gutxitan, behin baino gehiagotan egiten zuen estropezu bahitzaile hark. Eta pausaje baldar haren kontura, makina bat algara egiten genituen. Ez herrena zelako: buruan bueltaka genituen arazo haiek guztiak ahazteko modu bakarra zelako, eta armak zituzten soldadu mukizu haien kontra egin genezakeen tiro bakarra zelako.

Barruak husteko beste modu bat zen. Izan ere, bahiketakide zenbaitekin ezin nituen elkarrizketa luzeak izan. Ingeles maila nahiko apala nuenez, eta israeldarren gaztelania maila ere antzekoa zenez, ezinezkoa zitzaidan haiekin behar bezala komunikatzea.

«Bere garaian zergatik ez ote nion behar adina garrantzi eman ingelesari?». Galdera hori askotan egin nion neure buruari. Izan ere, nire kideei gauzak esateko, une orotan nola sentitzen nintzen adierazteko beharra nuen, eta hizkuntza ez jakitea, egia esan, oztopo handia zen. Neure buruarekin haserretzen nintzen egoera hartan. Eta horren ondoren, promesa:

«Hau guztia bukatzean ingelesa ikasteari ekingo diot berriro».

Arratsalde hartan ere ordu asko pasatu nituen etzanda, bakardadean. Eta ezin izan nuen Estitxu burutik kendu. Gauzak ondo joan izan balira, asteburu horretan elkartu behar genuen biok berriro. Baina bistakoa zen moduan, ez zen posible izango.

Gogoeta eta burutazio artean, parentesiak zabaldu nahian bezala, kanpamendu hartan zeuden bahitzaile berriei begiratzen nien: nolakoak ziren, hatzik falta ote zuten edo ez, herren egiten zuten, nola jantzita zeuden, ze zeinu egiten zituzten, nola hitz egiten zuten, zer esaten zuten... arratsalde hartarako, haiei begiratzea denbora pasatzeko modu bikaina izan zen niretzat.

Besteak beste, bahitzaileen artean zigarroak oso prezia-
tuak zirela konturatu nintzen. Eta umeek gaiztakeria egiteko
jartzen duten malezia adinakoarekin, eskatu egin nien ziga-
rro horietako bat. Ez nintzen erretzailea, baina hainbeste
desiratzen zuten hura kentzeak ondo sentiarazten ninduen.
Gerra hartan, sokatira hartan, norgehiagoka hartan parte
hartzeko nire modua zen.

Eskatu eta lortu nuen zigarroa. Baina ez niretzat baka-
rrik. Nerabezaroan bezalaxe, gainontzeko bahitu erretzailee-
kin konpartitu behar izan nuen. Hori zen gutxienekoa. Beste
arrazoi batzuegatik erre nuen zigarro hura. Eta ez zen azke-
nekoa izango.

Entretenimendu horietaz gain, eguna oso luzea egin
zitzaidan.

Afalostean, eta eltxo gogaikarri mordo bat akabatu
ostean, oheratu egin nintzen.